



# Heriotzaren pedagogia: Doluan ez gaudenean, heriotzaz hitz egiteko aukerak sortuz!



**Eka. 26 2026**

**Kod. H02-26**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Eka. 26 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



## **Azalpena**

Heriotzaren pedagogiak haur eta gazteei bizitzaren aurrean kokatzeko baliabideak eskaintzen die. Bizitza osotasunez begiratu eta bizi ahal izateko baliabideak, heriotzaren tabua gaindituta eta bizitzan zehar izan ditzaketen doluei aurre egiteko berezkoak dituzten baliabideak aktibatzen lagunduta.

Doluan ez gaudenean, momentu ona da heriotzaz gogoetatu, filosofatu, esperientziak partekatu eta elkarrekin ikasteko guneak eta uneak sortzeko. Ikastetxeok, aisialdi taldeok, eta haur eta gazteekin dihardugun erakundeok baliabide hauek eskaintzeko ahalmena dugu.

Ikastaro honetan, tartean dolurik izan gabe, heriotzaz eta bizitzaz gogoetatzeko proposamenak esperimintatu dituztenak izango ditugu, gurera ere ekartzeko baliabideak jaso ahal izateko eta elkarren artean ikasteko. Adin tarte desberdinentzako egindako proposamenak eskainiko dizkigute: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxillergorako proposamenak ezagutuko ditugu.

## **Helburuak**

Heriotzaren pedagogia dolurik ez dagoenean landu daitekeela ikastea.

Dolurik ez dagoenean haur eta gazteekin heriotzaz eta bizitzaz gogoetatzeko baliabideak ezagutzea, adin ezberdinetara egokituta.

Heriotzaren pedagogian esperientzia duten erreferenteak ezagutzea.

# Programa

2026-06-26

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Nere Erkiaga Laka</b>   Hil Argi ElkarteaHizkuntza: euskara
09:25 - 10:15	“Txikienek heriotzari buruz irakatsiko digute (Haur Hezkuntza)” <b>Naroa Martínez Suárez</b>   Heriotza Hurrekin - Maistra eta psikopedagogoHizkuntza: euskara
10:15 - 11:05	“Aisialdiko giroa, heriotzaz gogoetatu eta partekatzeke momentu aparta (Lehen Hezkuntza)” <b>Nekane Martiarena Labandibar</b>   Abaraxka Udal Ludoteka (Oiartzun) - Hezitzailea eta ludotekako koordinatzaileaHizkuntza: euskara
11:05 - 11:35	Atsedena
11:35 - 12:25	“Irakaslea bere bakardadean: Heriotza DBHko filosofiako ikasgaian txertatzen” <b>Ainhoa Muñoz Sarasketa</b>   Filosofiako irakasleaHizkuntza: euskara
12:25 - 13:15	“Batxiko gazteek ere heriotzaz beldurrik gabe filosofatzen dute” <b>Bakarne Mendiola Inza</b>   Batxilergoko filosofia irakaslea eta tutoreaHizkuntza: euskara
13:15 - 13:55	Mahai ingurua: Mahai ingurua <b>Nekane Martiarena Labandibar</b>   Abaraxka Udal Ludoteka (Oiartzun) - Hezitzailea eta ludotekako koordinatzaileaHizkuntza: euskara <b>Ainhoa Muñoz Sarasketa</b>   Filosofiako irakasleaHizkuntza: euskara <b>Naroa Martínez Suárez</b>   Heriotza Hurrekin - Maistra eta psikopedagogoHizkuntza: euskara <b>Bakarne Mendiola Inza</b>   Batxilergoko filosofia irakaslea eta tutoreaHizkuntza: euskara <b>Nere Erkiaga Laka</b>   HIL ARGI ELKARTEA - ModeratzaileaHizkuntza: euskara
13:55 - 14:00	Itxiera <b>Nere Erkiaga Laka</b>   Hil Argi ElkarteaHizkuntza: euskara

## Zuzendaritza



### **Nere Erkiaga Laka**

Hil Argi Elkarte

---

La Laguna Unibertsitatean Tanatologia Masterra (2017), Euskal Herriko Unibertsitatean Komunitate Garapena eta Parte Hartze Masterra (2007) eta Mondragon Unibertsitatean Euskal Kulturaren Transmisioan Graduondoa (2011) ikasketak eginda ditu. Taldeen bideratzean eta heriotzaren inguruko ezagutza zabaltzen eskarmentua du eta Hil Arte Bizi sortu du, heriotzaren aurrean herritarrak eta komunitateak ahalduntzeko egitasmoa. 2018an Hil Argi Elkartearen sorrera bultzatu du. Elkarte honek, besteak beste, "Gehiago Gara" ekimena eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzat "Bertso ipuin bat zuretzat" egitasmoak abiatu ditu. 2020-2021 ikasturtean zehar, Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan heriotzaren inguruko ezagutza hedatzeko 41 ataletako tartea bideratu zuen: <https://hilargi.eus/irratian/>

## Irakasleak



### **Nere Erkiaga Laka**

Hil Argi Elkarte

---

La Laguna Unibertsitatean Tanatologia Masterra (2017), Euskal Herriko Unibertsitatean Komunitate Garapena eta Parte Hartze Masterra (2007) eta Mondragon Unibertsitatean Euskal Kulturaren Transmisioan Graduondoa (2011) ikasketak eginda ditu. Taldeen bideratzean eta heriotzaren inguruko ezagutza zabaltzen eskarmentua du eta Hil Arte Bizi sortu du, heriotzaren aurrean herritarrak eta komunitateak ahalduntzeko egitasmoa. 2018an Hil Argi Elkartearen sorrera bultzatu du. Elkarte honek, besteak beste, "Gehiago Gara" ekimena eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzat "Bertso ipuin bat zuretzat" egitasmoak abiatu ditu. 2020-2021 ikasturtean zehar, Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan heriotzaren inguruko ezagutza hedatzeko 41 ataletako tartea bideratu zuen: <https://hilargi.eus/irratian/>



### **Nekane Martiarena Labandibar**

---

Ikasketaz psikologian lizentziatua, baina betidanik aisialdi munduan murgildua, haur, nerabe eta baita adinekoekin ere. Urteak da Oiartzungo Abaraxka Udal Ludotekako arduradun eta kudeatzaile dela. Abaraxkan proiektu eta egitasmoa oso ezberdinak eramaten dituzte aurrera, Gau beltza, Gure hilak oroitzeko eguna, Oiartzungo Zaintzaileak egitasmoa.... Herria eta herritarrekin txertatzea lortu da ludoteka. Aisialdia erabat hezitzailea dela sinisten du eta hurrek jolasean asko ikasten duten dudarik ez du. Balio hezitzaileak transmititzen dituzte ludotekatik jolasean: euskara, feminismoa, kultura, aniztasuna, herrigintza, belaunaldien arteko transmisioa... Eta heriotzarekin ere berdina egiten dute, heriotzari aurre hartzen zaio eta heriotzaz hitz egiten dute. Urtero gure hilak oroitzeko eguna antolatzen dute bertako hurrekin honetarako espreski landatua duten intxaurrondoan. Gau beltza ere heriotzarekin harremanetan jartzeko baliatzen dute, eta honen harira "Gau Beltz on" liburua argitaratua dute.



### **Naroa Martínez Suárez**

Hezkuntza

---

HH eta LHko maistra eta psikopedagogo. Hezkuntza publikoan irakaslea. 10 urte baino gehiagoz Bizitzaren, Galeren eta Doluaren pedagogian espezializatzen. Heriotzaren Pedagogia aurrera daramat inguruan ditudan hurrekin, bai eremu pertsonalean baita profesionalean ere. Helduentzako ikastaroak eta hitzaldiak eskaintzen ditut eta baita familientzako tailerrak ere. Heriotzaren gaia gizarteratzearen beharra argi ikusten dut eta horretarako helduok gaia naturalizatu behar dugula sinesten dut.



### **Bakarne Mendiola Inza**

---

Filosofian lizentziaduna. Pedagogia sistemikoan Masterra. Tutoretza eta orientazio pedagogikoan formakuntza, ikasleen jarraipena, komunikazioa eta gatazken kudeaketa lantzen dituena. Jakin fundazioarekin kolaboratu du. Azken hamarkadan heriotzaren dimentsioaz jabetzeko proiektua eskaintzen dihardu batxilergoko ikasleei.



### **Ainhoa Muñoz Sarasketa**

---

Filosofian espezializatutako irakaslea da. Filosofia Gradua egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ondoren bi master egin zituen Universitat de Barcelonan: Pensamiento Contemporáneo y Tradición Clásica eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra. Filosofia, antropologia, Garapen pertsonal eta sozialari aplikatutako filosofia eta Balio etiko eta zibikoekin lotutako irakasgaiak irakasten ditu. Hezkuntza prozesua pentsamendu kritikoa, hausnarketa filosofikoa eta ikasleen garapen pertsonal eta soziala sustatzen duen eremu segurua bilakatzea du helburu.

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2025-06-26 ARTE</b>	<b>2026-06-26 ARTE</b>
<a href="#">UIK euskaraz</a>	25,00 EUR	-
<a href="#">Donostia Kultura</a>	-	25,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa